

KANALAK

Kontsumitzaileekin edo kontsumitzaile potentzialekin harremanetan jartzeko baliabide ezberdinak erabiliko ditugu. Alde batetik, jendea gure proiektuaren existentziaz jabetzeko, modan dauden **sare sozial** batzuk erabiliko ditugu: instagram, twitter eta facebook. Gainera, jendeak gurekin kontaktatzeko sare sozialetan jarriko dugun **gmail** bat izango dugu . Eta bestetik, kontsumitzaileak arazo edo zalantzak badituzte hozkailuko pantailan dauden azalpenen amaieran egongo den **telefono zenbaki** bat izango dugu.

Pantailadun hozkailua, hozkailuak egiten dituen enpresaren salmenta gunetan salduko da. Beraz, **hozkailuen enpresako produktuak saltzen diren dendatan eta** hozkailuen enpresak duen **web gunean** on line salduko da produktua. Bestetik, **gure web gune** propioan ere, on line salduko dugu hozkailua. (produktua toki ezberdinetan salmentan jarriz, bezero potentzialen sarea handituko dugu)

Pantailadun hozkailua denda batean erosten bada, erosleak produktua eramateko aukera izango du. Baina, nahi izatekotan, erosleak adierazten duen **helbidera eramango zaio** eta kostu gehigarri hau ordaindu beharko du. Hozkailuak egiten dituen enpresaren web gunean on line erosten bada hozkailua, enpresa honen garraio bideak erabiliko dira produktuak banatzeko. Gure web gunean erosten bada, erosi dugun kamioiarekin banatuko dugu hozkailua.

Laburbilduz, erabiliko ditugun komunikazio-kanalak sare sozialak, gmail-a eta telefono zenbakia dira. Salmenta-kanalak hozkailuen enpresaren dendak eta enpresa honen web guneko on line denda, baita gure web guneko on line denda dira. Azkenik, banaketa-kanalak dendak, hozkailuen enpresaren garraio bideak eta gure kamioia dira.

